A 1307



## altza

**«Altza Hautsa Kenduz»** liburuaren bigarren zatia kalean da dagoeneko. Sei urte igaro dira lehenengo liburua plazaratu zenetik eta denbora honetan Altza Historia Mintegiko partaideak herriko lana eta dokumentuak biztanle orori eskuratzeko helburuarekin lanean aritu dira. Askorentzat sei urte hauek luze egin dira aurkezpen egunean ikusi genuenez.

Liburuaren aurrekaldean, aurkezpen modura, Joaquin Garridok bildu ditu libururaren oinarriak: «Iparraldeko hilerri baten aurpegitik ateratako zuhaitzak bere sustraiak lurrean hondoratzen ditu, bertatik jana izango duelako eta eguzki printzeen dizdirak denborarekin zuhaitza hazten utziko dutelako. Zuhaitz honen izena Altza izanik, ondo egokitu dakioke gure bigarren liburuaren ispirituari».



### Gazteentzako denborapasak

**Gazteen inguruan lanean dabiltzan zenbait elkartek, eguberrietarako hainbat ekintza antolatu du. Astean zehar maskara, mobiels larru, musika, estainu eta eskalada tailerrak izan dira eta ostiral arratsaldean, hilaren 30ean, pultsera tailerra, txokolatada eta sukaldaritza tailerra zein diskoteka izango dira. Urtarrilerako ere gaztetxoentzako egitaraua iragarrita dago dagoeneko. Asteartean eta asteazkenean, hilaren 3 eta 4an, goizez puenting ikastaroa antolatu da eta arratsaldean berriz grafitti ikastaroa izango da.**

## herrera

# Eguberriak jolaserako dira

Bidebiteako Kabia Haur-Txokoak aste osoan zehar 8-16 urte bitarteko gazteentzat ekintzak antolatu ditu.

Ostiralean, hilak 30, goiz osoan zehar eta arratsaldeko 17.30ak arte 12-16 urte bitarteko gaztetxoek izango da zereginik. 11.30etan Eguberrietako Hormirudien Txapelketa izango da. Izenematea Haur-Txokoan egingo da eta bertan banatuko da behar den material guztia. Arratsaldeko 17.00etan berriz buruhaundiak ibiliko dira auzoan zehar eta 17.30etan eguna bukatzeko merendola.

Bidebietako Kabia Haur-Txokoak, Bidebietako Familia eta Giza Heziketarako Zentruarekin batera zine emanaldiak, jokoak, faroltxo lehiaketak, makilaje tailerrak, mountain bike txapelketak eta kirol ekintza ugari antolatu ditu eguberri egun hauetarako.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

Jolas
JOSTAILUAK LIBURUAK OPARIAK
Heriz pasealekua, 9 - Tfnoa.: 31 06 20

HAURRIDE
didó


FELIPE IV, 13 • DONOSTIA
Tfnoa.: 45 88 02